

Historiako Gradua
Filologia eta Historia Saila

**Mertzenarioak eta bortizkeria Ehun Urteko Gerran (1360-
1379)**

Autorea: Peio Irizar Lascurain

Tutorea: Ekaitz Etxeberria Gallastegi

Laburpena

Gradu amaierako lan honetan Ehun Urteko Gerraren testuinguruan, bereziki 1360tik aurrera, garatu zen mertzenarioen fenomenoaz aztertzen da. Talde hauek bizirauteko aurrera eramaten zuten estrategiak eta estrategia horiek gizartean zuten eragin eta isla izango ziren helburu nagusiak. Honela, Mertzenario edo *Routier* hauen jatorri edota ezaugarriak aztertzeaz haratago, talde hauek zuten jarrerak eta gizartean hauekiko zegoen ikuspegia landuko dira.

Biolentzia estrukturala zen gizarte batean, biolentzia beraren erabilera ez zen zer bait berria, beraren inguruan teorizazio ezberdinak garaturik baitzeuden, baina biolentzia hori gauzatzen zuten talde horiek berriak ziren. Honela, gerra garaian soldaduek baliatzen zuten indarkeria eta *routier* hauek aplikatuko zutena gehiegi ezberdindu ez ziren arren, gizartearen zati batek honen inguruan azalduko ikuspegia ez zen berbera izango. Talde hauen aktibitateekin amaitzeko saiakerak anitzak izango ziren arren, saiakera gehienek helburua lortu gabe amaituko zuten.

Konparaketa bat egite aldera, monarkien azpiko soldaduek eta mertzenariak aplikaturiko estrategiak aztertuko ziren, hauen inguruan gizartean zegoen ikuspegia ikusteko Christine de Pisan eta bestelako autore batzuen lanak aztertuz. Era berean, estrategia hauetan biztanleria zibilak zuen lekua eta biztanleria zibilak hartuko zuen jarrera ikusiko ziren.

Lanean zehar mertzenario hauek soldaduek gerra garaian aurrera eramaten zuten strategiaren luzapen bat egiten zutela ikusi ahalko zen, biztanleria zibila orokorrean, zuen potentzial ekonomikoa medio, jomuga izanez. Biztanleria zibil hori jomuga izateaz gain bortizkeriaren zabaltzearekin parte ere izango zela ikusten da, ezegonkortasun politikoarekin batera *routier*-en fenomeno hainbat hamarkadatan zehar Europar fenomenotzat definituko zuena.

Indizea

1.	Sarrera.....	4
2.	Ehun Urteko Gerra	5
3.	<i>Routier</i> -en jatorria	11
3.1.	Gerra tekniketan emandako aldaketak	11
3.2.	Ejertzito profesionalen sorrera Ingalaterran.....	13
3.3.	<i>Routier</i> -en sorrera.....	15
4.	<i>Routier</i> -ak eta indarkeria	17
4.1.	Indarkeriaren ezaugarriak eta zabaltzea	17
4.2.	<i>Routier</i> -en indarkeriaren zilegitasuna	20
4.3.	Indarkeria Erdi Aroan	22
4.4.	Zibilen egoera.....	24
5.	Ondorioak	25
6.	Argitaraturiko iturriak	28
7.	Bibliografia.....	28

1. Sarrera

Mertzenarioak Erdi Aroaren amaierako gatazka politikoetan paper zentrala jokatu zuten fenomeno bat izan ziren. Biolentzia bere erroetan sarturik eta gizarte markatzaile bezala zuen gizarte batean gerrara profesionalki dedikatzeak hasiera batean ez zuen zertan arraroa izan beharko. Honela, Erdi Aroan zehar une gehienetan, kantitate handiago edo txikiagoetan, mertzenarioak presente egon ziren. Hala ere, XIII. mende amaieratik aurrera ematen hasi ziren aldaketa tekniko, militar eta batez ere sozialek panorama guztiz aldatuko zuten. Ordura arte gerra egiteko modu zentralaren gehigarri bezala eta nahiko forma osagarrian gertatzen zen fenomeno bat eraldatu egin zen.

Mertzenarioak eta mertzenaritza definitzeko kontzeptu nahiko zailak dira eta historialariak ez dira ados jarri honen inguruan. Atzerritartasunak jokatu zuen paperaren, nazionalismo edo antzeko kontzientzien existentziaren eta honek edukiko zuen eraginaren inguruan eztabaidak emanez. Ondorioz, lan honetan, nagusiki Kelly DeVries-en definizioari jarraiki, mertzenario hitzarekin armak hartzea okupazio eta karrera bezala zuen jende multzoa identifikatuko dugu (DeVries, 2015;196-199).

Gerra egiteko modua aldatzarekin batera gerra egiten zuten pertsonak ere aldatu ziren, hauek zituzten ezaugarriak alegia. Gizarte beraren egituraketan aldaketak ematen hari ziren, eta soldaduen jatorri sozialean ere islatuko zen. Behe Erdi Aroan zehar Erlazio feudo-basailatikoan oinarrituriko armadak desagertuz joango ziren, soldadu boluntarioen armada bati paso eginez. Hala ere, ikusiko dugun bezala, hau denboran zehar garatzen joan zen sistema bat izango zen. Sistema horren beraren ondorio izango ziren Behe Erdi Aroan Mertzenario edo *Routier* bezala ezagutzen ditugun taldeen fenomenoa.

Lan hau burutzeko orduan nagusiki gaiaren aspektu ezberdinen inguruan jada idatzitako artikulua zientifiko eta monografiez baliatuko gara, ikerketa gaien adituak diren eta erreferentziatzat hartu daitezkeen autoreen lanetan zentratuz. Lan zientifiko hauek nagusiki historialari anglosaxoien eskutik egindakoak dira, eskola frantsesaren perspektiba, nagusiki hizkuntzaren oztopoa dela eta, bigarren maila batean utzi direlarik. Honekin batera lehen eskuko iturri batzuen erabilera emango da, aurretik azaldu diren aspektuak lantze aldera. Hauek ez dira dokumentu argitaratu gabeak izango, jada aztertutako izan diren lehen mailako dokumentuak izango dira, aurretik

aipaturiko artikulua edo monografiatik, dokumentu bildumetatik edota bestelako Iturrietatik ateratakoak.

2. Ehun Urteko Gerra

Landu behar dugun gaia jorrazteko ezinbestekoa zaigu testuinguru historikoa ulertzea, eta une historiko horren protagonista zentrala Ehun Urteko Gerra izango litzake. Orokorrean Ehun Urteko Gerra Ingalaterrako Monarkia eta Frantziar Monarkiaren artean egondako gatazkatzat definitu daiteke, baina historiografiak gaiaren inguruan egin duen azterketa aldatzen joan den heinean gatazkari buruz dagoen irudia ere aldatu dela ikus daiteke.

Kasu honetan, lan honen aztergai den mertzenarioen biolentzia ulertze aldera, gatazkaren jatorri historikoak eta amaiera arteko bilakaera azalduko dira. Era berean gatazkaren naturaren inguruan egin diren interpretapen ezberdinak landuko dira.

Gatazkaren oinarriak 1066. urtean aurkitzen direla esan dezakegu, Gilermo I konkistatzaileak Ingalaterra konkistatu zuenean. Gilermo, Normandiako duke zena, Ingalaterrako errege bilakatu zen 1066an. Erlazio feudal berezia sortzen zuen horrek, Ingalaterrako erregea, kontinentean zituen feudoen bitartez, aldi berean Frantziako monarkiaren basailua baitzen. Alde batetik erregea bera baino boteretsuago ere izan zitekeen basailu bat aurkitzen zen, bere autonomia gaitasuna berresteko irmo. Bestetik, errege Frantsesek beraien nagusitasuna argi uzte aldera era jarraituan lur horietan esku hartze judizialak egiten zituzten (Allmand, 1989, 24-27). Sistema feudalaren barneko gatazka honek Plantagenetar Inperioaren eta Monarkia Frantsesaren arteko aurkaritzaren oinarri bat suposatuko zuen.

Arazo feudal klasiko horri, ondoren, 1327an, arazo dinastikoa batu zitzaion. Karlos IVa Frantziako erregea zena seme gabe hil zenean, Eduardo IIIak (bere aita Eduardo II tronutik kendu ondoren Ingalaterrako errege bilakatu berri zenak) bere burua Frantziako errege bezala ikusten zuen. Eduardo III, amaren aldetik, Karlosten iloba zen, eta ondorioz hautagai nagusi bezala ikusten zen. Noblezia frantsesak ez zuen hori onartu, eta emakume baten bitartezko ondorengotza balizkoa ez zela argudiatuz haietako kide bat hautatu zuten errege bezala, Felipe Valoiskoa (Felipe VI,a izango zena), erregearekiko horren gertuko odol erlazorik azaldu ez arren (Allmand, 1989; 28-29).

Ala ere, Ehun Urteko Gerraren kasuan, gatazka feudo basailatiko eta dinastikotik haratago zeuden elementuak ere identifikatuak izan dira. Kelly DeVries-en ustetan Ehun Urteko Gerra XIX. mendean sorturiko kontzeptua izanik, hasiera batean elementu horiek kontuan ez zituen, kontzeptu honen berrinterpretapen bat egin beharko zen. Gatazka hau denbora luzeagoan eta zuzenean erlazionaturik egon gabe emango ziren borroka ezberdinen batura izango zela azaltzen du. Honela, estatu modernoaren sortzea ematen hari zen uneak sortzen zituen tentsioen, monarkia hispanikoa osatuko zuten erreinuen eta Germaniako Erromatar Inperio Santuaren indartzearen, Amerikaren aurkitzearen eta suitzarrek eragingo zuten aldaketa militarren testuinguruan emango zen gatazka. Testuinguru horretan eta testuinguru horren ondorioz sortuko zen gatazka (DeVries, 2008; 5-7).

Honela, tradizionalki Ehun Urteko Gerraren hasiera bezala kokatu den gertakarira iritsiko ginateke, Felipe VI.ak Ingalaterrako erregeari Akitaniako dukerria konfiskatu zion unera, alegia, 1337an. 1337ko konfiskazioa une sinboliko eta garrantzitsua izan arren Ingalaterrako erregeen eta Frantziako erregeen arteko gatazka luzetik zetorren gatazka bat zen, jada ikusi bezala (Allmand, 1989; 24-25).

1341ean Britainiako Juan III dukea ondorengo zuzen gabe hil zen, bere tronuaren jabetza Juan Montfortekoaren eta Juana Penthrivekoaren artean disputatuz. Frantzian berriki Felipe errege hautatzeko lege salikoa ezarri izana kontuan izanik, eta gertuagoko senidetasuna azaltzen zuenez (Juan III anaiordea zen), bere burua ikusten zuen duke berritatzat. Juan Montfortekoak errege ingelesaren asistentzia eskatu zuen eta Britainiako ondorengotza gerra Ehun Urteko Gerraren beste sekzio odoltsu eta luzea bilakatu zen, 1364rarte iraun zuena (Perroy, 1982; 85-86).

Ehun Urteko Gerra ez zen une oro intentsitate maila osoko gerra bat izan, fase ezberdinak izan zituen gatazka luze bat izan zen. 1337an Frantziako tronuaren inguruko lehia hasi zenetik 1360an sinaturiko Bretigny-ko bakera eman zen garaia lehen fase bezala identifikatu izan ohi da. Hurrengo faseak kronologikoki zehazki definitzeko orduan ezberdintasunak azaltzen diren arren orokorrean oinarria Emilio Mitre Fernandez-ek azaldurikoan aurkituko genuke. Mitre Fernandez-ek gerraren ardatz bezala bi fase paralelo garatu zirela azalduko zuen, ingeles tropen garaipen argiekin hasi eta erreazio frantses indartsuagoarekin amaituko zirenak. Lehena Crecy edota Poitiers ondoren hasi eta bigarrena Azincourt edota Verneuil ondoren emanez, bakoitzaren

ostean erreakzio arrakastatsu frantses bat garatuz. Lehen kasuan Karlos V.aren erreinaldikoa, eta bigarren kasu horretan ingeles presentziarekin amaitzera eraman zuena (Calais hiria izan ezik) (Mitre Fernandez, 2009; 19)

Bretignyko bakerarteko lehen fase horretan ingelesen nagusitasuna nabaria izan zen, gerraren erakusgarri izango zen *chevauchée*-en¹ unerik arrakastatsuenak emanaz. 1346-47-ko kanpaina bereziki arrakastatsua izan zen, Crecy-ko garaipena eman zen unea², bai eta 1355ekoa, Poitiers-ko garaipenaren unea³.

1348an Europa eraldatu eta garaiko biztanlerian izugarritzko marka utziko zuen fenomeno hasi zen, Izurrite Beltza, ordura arteko gerra aktibitateen jaitsiera bizkorra ekarri zuen zerbait. XIV. mendeko 50eko hamarkadan inpas egoera bat eragingo zuen izurriteak, krisi sozial eta demografikoak ez zuen aukera gehiegirik ematen eta, Ingalaterra, adibidez, bere populazioaren herena galtzera iritsiz (Contamine, 2014; 39). 1353 eta 1354ean bake saiakera berriak egon ziren, aurreko hamarkadan ere eman zirenen antzekoak, eta kasu gehienetan Aita Santuaren bitartekaritzaren ondorioz ere gertatzen zirenak, baina ez zen akordiorik lortzen. Ingelesak Frantziako hainbat lurren kontzesioa eskatzen zuten, garrantzitsuenak Akitania eta Normandia, baina ez ordura arte bezala feudoan, Ingalaterrako erregeen soberania osoan baizik (Allmand, 1989; 36-37).

1355ean Eduardo printze beltzak oso ezaguna izango zen *chevauchée* bat zuzendu zuen, Poitiers-eko garaipenera eta Juan II.a erregearen atzematera eraman zuena. Gainera Frantzia barnean bestelako arazoak sortu ziren, monarkiaren irudiak jasandako kolpearen eta gerrak eragindako kalteen ondorioz biztanleria asaldaturik eta erreforma eske zegoen (Contamine, 2014; 45-47).

¹ *Chevauchée*-ak suntsiketa operazio azkarrak ziren, Erdi Aroko gerran ohikoak ziren sakuraketa operazioen modura, baina eskala handiagoan eta denbora laburrean lurralde handiak barneratuz (Rogers, 2002; 37-39, McGlynn, 2013; 317-319)

² 1346an Normandian Caen hartuz hasi zen kanpaina, ondoren Parisetik gertu helduko ziren. Bertatik iparraldera itzultzen hari zirela ejertzito Frantsesak ustekabeen harrapatu zituen, baina arkularietan oinarriturik garaipen garrantzitsua eskuratu zuten. Errege Frantsesa ihesean irten behar izan zen (Allmand, 1989; 34).

³ 1355ean Printze Beltzak Burdeosetik hasita mediterraneo inguruan *chevauchée* bat burutu zuen. 1356an Burdeosetik irten eta iparralderantz jo zuen, ingelesak berriz ere bidean oztopatzera irten zitzaie, Poitiers-en elkar aurkituz. Aita Santuaren mezulariak bitartekari lanak egiten saiatu ziren arren ez zuten arrakastarik izan. Berriz behin arkularietan eta defentsa posizio onak izatean oinarritu zuten garaipena (Allmand, 1989; 37).

Honela, 1358tik 1360ra negoziaketak emango ziren bake bila, preso zen Juan IIak kontzesio handiak sinatu zituelarik Londresko dorrean preso zegoelarik. Hauek ez ziren Frantzian onartuak izan, eta egoera indarrez behartzeko 1359an beste espedizio bat prestatu zen, Londresko itun horren aplikazioa lortze aldera. Espedizioa ez zen politikoki arrakastatsua izan, kanpaina bera arrakastatsua izan arren eta zakuratzeko handia egin arren frantziar armadak ez baitzuen aurpegia eman, eta ondorioz ingelesak boltsikoak beterik baina esku hutsik itzuli ziren (Perroy, 1982; 107-110).

Azkenean, 1360an, Eduardo IIIa erregeak Frantziako koroarekiko eskaerak alde batera uztearen ordainetan erregeak kontinentean eskuratuko zituen lurak soberania osoan jasotzea adostu zuten, errege ingelesaren lehentasunak argi utziko zituen zerbait. Horretaz gain Juan II erregearen erreskatea 4 milloi dukaturen balioan adostu zuten. Hala ere akordio honek aldaketak jasango zituen, beranduago Calais-eko akordioan aldaketa batzuk emanez. Bi errege hauen erreklamazioak alde batera uztea tratatuko beste puntuak betetzean aktibatuko zela akordatu zuten, hau da, eskualdatzen ziren lurak efektiboki abandonatzen zirenean. (Perroy, 1982; 107-110. Contamine, 2014; 54-56).

Tratatua aplikatzeko egongo ziren arazoak zirela eta honek gerraren berrartzeari ateak irekiak utzi zizkion, ondoren gertatuko zen bezala. Lurralde horietan, bereziki Monarkia Ingelesak, okupazioa gauzatzeko zituen soldaduei kontratua etetearekin Eduardo IIIak egintzat eman zuen bere partea, baina soldadu horiek, orain beraien kontu aurkitzen zirelarik, ez zuten erraz jarriko gotorlekuen abandonatzea, eta frantziar lurraldeetan zenbait arazo sortzen hasiko ziren (Perroy, 1982; 111-112).

Ordura arte monarkien soldaduak ziren horiek, bakearekin, bizitza irabazteko bitarteko gabe geratuko ziren. Egoera honetan soldadu hauek mertzenario izatera igaroko ziren, *routier* izatera pasako ziren. Hauek taldeetan antolatzen joango ziren, eta arazo handiak sortu zituzten frantziar lurraldeetan, bake garai bat izan beharko zenean gerra garaian zuten bizimoduarekin jarraitu baitzuten (Pépin, 2016; 52-53). Horren adibide izango zen 1362an emandako Brignais-eko bataila, frantziar erregearen tropak mertzenario hauek okupaturik zuten gotorleku bat setiatzen zeudela eman zena. Konpainia horretako tropek setioa gelditze aldera frantziar armada erasotu eta garaitu zuten, zituzten gaitasun militarren erakusle (Fowler, 2001; 47-51). Gotorleku horien

kontrolak garrantzi handia zuen mertzenario talde hauentzat, hainbat aukera operatibo zabaltzen baitzizkieten.

Ondorioz eta esan bezala, bakea sinatua egon arren, egoera ezegonkorra zen, eta bertako artikulua betearaztea nahiko konplexua suertatzen zen. Bretignyko bakearen ondoren tropa horiek, ingeles lurraldeetan sarrera eragotzirik zutelarik, frantziar erregearen lurretan haritu ziren. Ingelesek hauei aurre egiteko gai ziren, baina frantziar lurak ez zuten horrelako organizaziorik. Honela, gerratik askeago geratu ziren frantziar lurak, Borgoina edota Proventza, *Routier*-ek erakargarrien ikusi zituzten zonaldeak, izango ziren hauen jomuga nagusi (Perroy, 1982; 124-125).

Egoera gogorrago bilakatuko zen 1364 ondoren, Britainiako ondorengotza gerra amaitzearekin, mertzenario hauetako gehiago geratu baitziren kontraturik gabe. frantziar politika, eta Aita Santuak ere aplikatuko zuena, *routier*-ei aurre egin ezinda hauek beste fronte batera berbideratzea izango zen, kanpaina alternatiboetara bideratuz *routier* horiek (Perroy, 1982; 125-127). Martxan jartzera iritsi ez zen gurutzada bat antolatzen saiatu zen Aita Santua, mendebaldeko elizaren zisma aurretik, eta arrakasta gehiagorekin konpainia zuria eta beste batzuk Italiara bideratuak izan ziren (Pépin, 2016; 52).

1368an gerra berriro hasi zenean *routier*-ak berriz ere zonalde honetara itzuliko ziren. Hurrengo 12 urteetan, Karlos V.ak ezarritako estrategia guztiz defentsiboaren aplikazioaren bitartez ingeles jabetzan zeuden lurak pixkanaka Frantsesen eskutara pasatzen joan ziren. Borroka hainbat tokitan aldi berean eta setio eta borrokatxoaren bitartez egitea bilatzen zen, batailei uko eginez. 1380ean Karlos Va hil zenerako Calais-en sinatu zen bakearen arrastorik gabe geratu zen egoera berria, ingelesak lur zati handiak galdu zituzten, nahiz eta oraindik Calais bera, Cherburgo, Quercy edota Burdeos kontrolpean zituzten. Era berean ingelesak denbora horretan espedizioak eta *chevauchée*-ak antolatzeko gai izan ziren, nahiz eta orokorrean arrakasta nahiko mugatua aurkitu (Contamine, 2014; 70-78).

Ingalaterrako erreinua eta bere gobernariak, azken urteetako porrotak medio, ahuldurik aurkitzen ziren. Gerrarekiko eta honek zekartzan zergekiko aurkaritza handia zen, 1381eko nekazarien altxamenduak agerian utziko zuen zerbait. Kontinentean zenbait espedizio egiteko proiektuak egin ziren arren porrot egin edo saiakera egitera iritsi ere ez ziren. 1382an Flandesen emandako altxamenduaren testuinguruan

planifikaturiko *chevauchée*-a kasu. Frantsesek ere Ingalaterra inbaditzeko planak prestatzen hasi ziren, baina azkenean ez ziren aurrera eraman. Honela, 1388an erreinuen su-eten partzial bat sinatu zuten, 1389an su-eten orokor bilakatu zena (Contamine, 2014; 85).

Su-eten hori bake luze bilakatuko zen 1395an, Rikardo II.a erregea Frantziako errege zen Karlo VI.aren alabarekin ezkontzeko akordiora iritsi zirenean. Honekin batera su-etena gutxienez beste 28 urtez luzatzea sinatu zuten. Ingalaterra barneko turbulenzia politikoak medio, 1399. urtean Rikardo II tronutik kanporatua eta Enrike IVa (Rikardoren lehengusua, Lankaster leinuko lehen erregea) ezarri zen errege (Perroy, 1982; 166-169). Hasiera batean diskurtso belizista izan arren, frantziar tronuaren erreklamazioan oinarrituz, segituan sinaturiko su-etena errespetatuko zuela baieztatu zien frantsesei. Hala ere honek mesfidantzak sortu zituen, eta gerrarako prestaketak ere hasi ziren bi aldean aldetik.

1403an behin-behineko bakea berrestu zuten arren, segituan amaitu zen hura, 1404an galestarrak altxatu zirenean frantziar laguntza jaso baitzuten. Galesera kontingente militarra bidaltzearekin batera, ingelesek kontinentean zuten lurak erasotu ziren, baina porrot egin zuten saiakera guztiek (Contamine, 2014; 94). Gainera, Frantzia barnean gatazkak sortu ziren, Luis Orleans-ekoaren eta Juan Borgoinakoaren arteko gatazka gogorak emanez. Hauek erreinuaren politika efektiboaren eta buruko gaitza jasaten zuen Karlos VI.a erregearen erregeordetza kontrolatzearen inguruan borrokatzen zuten. Borroka honetan lehenik Enrike IV.a eta ondoren, 1413an tronura iristean, Enrike V.a erakartzea bilatu zuten alderdiek (Perroy, 1982; 196-203).

Enrikek bi alderdiekin negoziazioak izan zituen arren, ez zuen arrakastarik izan edozein kasutan, eta Frantzia beretzat erreklamatzeko espedizioa prestatzen hasi zen 1413an. 1415ean Harfleur setiatu eta hartu zuen, eta bertatik Calais-era abiatu zen, *chevauchée* estrategia aplikatuz. Bidean zela, berari espero zioten frantziar tropekin topo egin eta Azincourt-en bataila izan zuten, ingelesek garaipen argia lortuz Orleanseko delfinaren tropen gainean. Porrotak Juan eta Delfinaren alderdiak negoziatzera bultzatu zituen, ingelesen garaipenaren beldur. Negoziaketak egin ziren arren, 1419an, bildurik zeudela borroka piztu eta Delfinak Juan akabatu zuen, Felipe bere semea Borgoinako duke berria bilakatuz (Contamine, 2014; 98-101).

Felipe ingelesekin aliatu zen bere aitaren hilketa mendekatzeko, nahiz eta ingelesez ere ez zen fio. Hala ere beraien bitartez erreinuaren barnean influentzia handia lortzea espero zuen, bere aitaren proiektuei jarraipena emanez (Contamine, 2014; 104). Honela, 1420an Troyes-eko tratatua sinatu zuten, Karlos VIa Frantziako erregetzat onartu baina Enrike Va bere oinordeko izendatzen zuena. Karlos VIa hiltzean batasun pertsonala ematea baina erreinu bakoitzak bere berezitasunak mantentzea espero zen. 1422an Meaux setiatzen zegoela Enrike gaixo jarri ondoren hil egin zen, aukera horiekin amaituz (Allmand, 1989; 56-57).

1422tik 1429ra Frantzia ingelesen eskuan egon zen, 1340 eta 1350-eko hamarkadetan bezala. Egoerak 1429ra arte iraun zuen, ingelesak Orleans setiatzen zedela Arkeko Joanak zuzenduriko tropa frantsesek erasotu eta garaituak izatean. Erreakzio frantsesaren hasiera izango zen hori, pixkanaka ingelesak kontinentetik kanporatuz joango zirelarik. 1453ko uztailaren 17an John Talbot Shrewsburyko kondeak zuzenduriko ejertzito ingelesa Castillongo batailan garaitua izan zen, tradizionalki Ehun Urteko Gerraren amaieratzat hartu izan den data (Allmand, 1989; 58-62).

3. *Routier*-en jatorria

3.1. Gerra tekniketan emandako aldaketak

XIV. mende erdialdera arte gerra estrategien oinarria osatuko zutenak gotorlekuak izango ziren. 800. urtetik 1450. urtera arte garaturiko kanpaina ia guztietan setioak eman ziren, bestelako liskar armatu eta batailak baino sarriago gertatzen zirenak (Jones, 2005; 211-213). Autore batzuek batailak saihestuak izateko tendentzia zegoela azpimarratuko zuten, kasu askotan hauek gotorlekuen setioari loturik edo hauen bitartez gertatzen zirelarik. Anne Curryk hau eztabaidan jarriko zuen, 1295 eta 1525 urteen artean urtero 0,8 bataila gertatzen zirela argudiatuz. Kantitate hori aurretiko zein ondorengo garaietan baino handiagoa izango litzateke, 1200-1295 artean 0,37 eta 1526-1600 artean 0,5 izanez (Curry, 2020; 365-366).

Ehun Urteko Gerraren barnean berebiziko garrantzia izan zuen gotorleku sistemak eta okupazio gerrak. Nahiz eta garaiari buruz dugun ideian gerra forma ezagunena *chevauchée*-ak izan hauek nagusiki gerraren lehen faseko fenomenoak izan ziren, 1360artekoa alegia. *Chevauchée*-en planifikazioan oinarritzko ideia osatzen zuen

hauen bitartez aurkariaren legitimitatea erasotzeak. *Chevauchée* estrategia hori ez zen berehala abandonatuko, baina jada ez ziren 1340-1350 garaian lortu ziren *chevauchée* arrakastatsuak errepikatuko (Prestwich, 1996; 204-205).

Gotorlekuek aurkariaren oldartzei erantzuteko eta soldaduen gordeleku bezala funtzionatuko zuten (Curry, 2020; 365), baina horretaz gain aristokraziaren erresidentzia bezala ere funtzionatu zezaketen. Kokalekuaren arabera, komunikazio sistemaren eta hiri nagusien gaineko kontrola erraztuko zuten, lurraldeen kontrol efektiboa izatea baimenduz, lurren konkista eta kontrolean garrantzizko erreminta izanez. Gilermo konkistatzaileak Ingalaterra hartu zuenean funtzio guzti horiek aplikatuko zituen (Prestwich, 1998; 206-210). Era berean, gazteluak botere pribatuaren erakusgarri handiena ziren, eraikitzen zituenaren interes eta boterearen erakusgarri (Jones, 2005; 211-212).

Gaztelu horien defentsa gaitasunak orokorrean setioak oso luzeak izatea eragiten zuten (Jones, 2005; 235). Honela, aurretik aipaturiko egoerari aurre egiteko, estrategia ezberdinak garatu ziren. Alde batetik hiri edo biztanleria zentro garrantzitsuen setioa aurkituko zen, honela hiria edo gotorlekua erori baino lehen etsaiaren armadak setiatuak askatzeko interbentzioa egitea espero zen. Estrategia hau eraginkorra izan zitekeen arren oso garestia suertatzen zen, setioak denbora luzean luzatu ahal baitziren, monarkiari izugarritzko gastuak sortuz (Rogers, 2005; 190-194).

Estrategia hori Ehun Urteko Gerraren lehen hamarkadetan erabilia izan zen, baina esan bezala arazo ekonomiko larriak sortzeko gaitasuna zuen, eta, ondorioz, bestelako estrategien erabilera ere eman zen, *chevauchée*-ak kasu. *Chevauchée*-etan etsaiaren lurren zakuratzearen bitartez Frantziar Monarkiaren legitimitatea kolokan jartzea edo armaden arteko talka behartzea bilatzen zen. Gainera, aldi berean Ingalaterrako erreinuak bere diru sarrerak handitzea eta etsaiarenak gutxitzea lortzen zuen (Rogers, 2002; 56-57. Curry, 2020 ;358-359). Hala ere, Anne Curryren esanetan, ez zen horren argi azalduko estrategia horren atzean bataila bat izateko saiakera egotea. Honela, 1355eko Printze Beltzaren espedizioak eta 1369-1382 artean emandakoetan hori eztabaidagarria izango zela esango luke (Curry, 2020; 360-361).

XIV. mendera arte gerraren ezaugarri nagusia zalditeriaren (bereziki pisutsuaren) garrantzia eta nagusitasuna zen. Batailetan jaun eta nagusi ziren, eta batailak erabakitzeko gaitasuna zuten. Infanteriak garrantzia belikoa zuen arren,

gaitasun ofentsibo txikia zuen zalditeriaren aurrean. Honen atzean Erdi Aroko zaldun eta arma gizonak zuten prestaketa eta entrenamendua, bai eta elikatu eta gerra materialez hornitzeko kapital handiagoak izateak aurkituko ziren (Rogers, 1995; 57).

Aldaketa hauek Iraultza Militar terminoaren azpian kokatu izan dira, historialari militar guztiek onartu ez duten zerbait, soziologo eta historialari ekonomikoen artean arrakasta gehiago izanez (Fernandez de Larrea, 2012; 16). Ustezko iraultza militarri loturiko aspektu landuenak infanteriaren rola garrantzi irabaztea, honek hilkortasunean izandako eragina edota artilleriaren agerpena izango liriteke. Honi lotuta, autore batzuek, nagusiki Clifford Rogers-ek, gizarteko sektore ez nobleen parte hartze militar handiagoa eman zela eta ondorioz, hauek zaldunen kodeetatik kanpo zeudenez, hilkortasun tasaren igoera eman zela esan dute, aho batez onartua ez dagoen zerbait (Rogers, 1995; 61-64). Infanteriak Behe Erdi Aroaren aurretik jada gerran parte hartzen bazuen ere nagusiki zalditeriaren ezkutu bezala izango zen, Behe Erdi Aroan, XIV. eta XV. mendeetan zehar garrantzia irabaziz. Honek erreklutamenduan ere eragina izango zuen.

3.2. Ejertzito profesionalen sorrera Ingalaterran

Erreklutamenduari dagokionez, Ingalaterrako kasuan zentratuz, garapen nabaria ikus daiteke XIII. mendetik aurrera. Sistema feudal tradizionalan monarkien indar militar nagusia errege familiak bere kideen artean batu ahal zituen hautagaiak izango ziren. Ondoren, oinarri honi, zerbitzu militarra ematera derrigortuak zeudenak batuko zitzaizkien. Sistema honek XIII. mende hasierarako arazoak azaltzen zituen, feudoen herentzia eta birbanatzeen harira hainbat feudoduni zerbitzu zama arindu beharrak erakutsiko lukeen bezala. Galesen 1277an eta 1303an egindako kanpainetan azaldu behar ziren baino gizon gutxiago azaldu ziren, arazo horien beste seinale bat (Fernandez de Larrea, 2012; 17-18).

Honi, gainera, Ehun Urteko Gerraren ezaugarriak batu beharko zitzaizkion, ingeles kasuan itsasoz bestalde borrokatzen zen gatazka bat izango zelarik. Monarkiak Eskozia edota Gales-en gerrak zuzentzen zituenean zerbitzu militarra zor zuten nobleziako eta gentriko kideen erresistentziak nabariak izanda, erresistentzia hauek kontinentean borroka egin behar zenean are handiagoak suertatzen ziren (Fernandez de Larrea, 2012; 19-20).

Bretignyko hitzarmena sinatu zen unerako jada zaldunen parte hartzea eta gentriak gerraren alde zuen jarrera gainbeheran zeuden. Hala ere armagizonen parte hartzearen jaitsiera, denboran zehar eta arkularien (bereziki zaldi gaineko arkularien) alde emango zena, ez zen horren bortitza izango. 1369an beraien arteko ratioa 1-1 izanez, Ehun Urteko Gerraren amaierarako 1-10 proportziora iritsiz ere (Bell, Curry et al, 2013; 271-274). Hala ere, gerlariaren izaeraren aldaketa horrek ez zuen zertan gizarte sektore militarren aldaketa erakutsiko, kasu askotan arkulari eta armagizonak familia bertsukoak izaten baitziren, beraien artean promozioak ere emanez, arkulari hasi eta armagizon amaituz (Bell, Curry et al, 2013; 162-163).

Baina soldaduen izana hobeto ulertze aldera garrantzitsuena erreklutamendu sareetan emandako aldaketak aipatzea izango litzateke, gerraren luzatze eta enkostatzearekin batera, XIV. mendeko gatazkaren ezaugarri nagusia. Erreklutamenduari dagokionez, lehenbizi azaldu beharreko gauza kapitainen garrantzia izango litzake. Goi mailako nobleziaren agindupean, eta hauek erregearenean, kapitainek gudarosteak antolatuko zituzten, eta erlazio sozialetan oinarriturik goitik behera ejertzittoa antolatuz joango zirela esan daiteke. Ejertzito hauetan, bereziki mende hasieran, garrantzi handia zuten ejertzito buruak erlazio zuzenen bitartez batu ahal zituen tropek. Beste zati bat, berriz, bestelako kapitainen azpian bere agindutara joango ziren, hauek ere beraien erlazio eta sare sozialez baliatuz, eta hau piramidean behera erreproduzituz (Ayton, 2017; 17-21).

Erreklutamendu hori, Ingalaterraren kasuan, *indenture* sistemaren logikaren barnean emango zen. Sistema hau monarkia bere gastuen gainean garatzen hari zen administrazioaren efizientzia saiakeren ondorio izango zen, XIV. mende hasieratik ingeles ejertzittoa guztiz soldatapekoa izanez. Erregeak espedizioan parte hartuko zuten kapitainekin kontratu bat sinatzen zuen, indenture deitua, bertan kanpainaren luzeera, kapitainak aurkeztu beharreko soldadu kopurua eta hauek jasoko zuten ordainketa bai eta bestelako akordioak (gerra harrapakinaren banaketa adibidez) ezarriz (DeVries, 2008 ;19-22).

Indenture sistemak paper zentrala jokatu zuen kontinentean ingelesek egingo zuten gerren prestaketan, eta bertan aipatzen den gerra harrapakinaren adibidea ere garrantzizkoa izango zen gerran parte hartu zutenen aberasteari dagokionean ere. Sistema honek aristokraziaren parte hartzea ere lortu zezakeen, hasiera batean

ordainketak suposatzen zuten ohorearen urraketa atzean uzten joan ahala, eta kontineteko lehen espedizioek ekar zezaketen aberastasunek erakarrita, parte hartze aktiboa izango zuten (Curry, 2020; 370-373). Hala ere parte hartze hori koiunturala izango zen, eta ingalaterratik urrun egindako kanpaina luzeek bertatik kanpo interes gutxi zituen aristokraziaren parte hartzea gutxituko zuten.

XIV. mendearen hasiera erreklutamendu dinamikan nahiko bizia izango litzake, gizonen aldaketa konstantea izango zen. Hala ere, dinamika horiek erreklutamendu sare berdinen barnean emango ziren, eta dinamika sozial berdinekin. Gizonen aldaketak hilkortasun eta erretiroen ondorio izanez, normalean jada esperientzia militarra zuten kideen nukleo errekonozigarri bat mantenduz (Ayton, 2017; 27-36). Mendearen erdialdetik aurrera jada hau aldatuz joango zen, erreklutamendu sare tradizionalak kolokan jarri eta krisian sartuko baitziren. Hau, hein batean, jada azalduko gerraren ezaugarrien aldatzearen ondorio izango zen, gatazka muga kontu definituago bilakatzean eta gotorlekuen kontrol eta mantenuak garrantzia hartzean epe luzearako karrera militarra egiteko aukerak zabaldu ziren, denbora luzeak igaroz postu batzuetan, egitura militarra aldatuko zuten zerbait (Ayton, 2017; 55-58). Hala ere 1359ko kanpaina, Bretigny-ko bakearekin amaitu zena, aristokraziaren parte hartze hadiena izan zuten kanpaina izan zen, orduetik aurrera jaitsiera argia izanez (Ayton, 1999; 28-30).

Karrera militar hau aurrera eramaten zutenen artean oraindik beraien posizio soziala eta familiaren ohorea helburutzat zutenak aurkitzen baziren ere, gero eta gehiago interes guztiz pertsonal eta mertzenario kontzeptutik gertuago egongo zen soldatapeko militarrek zabalduko ziren, erreklutamendu sare tradizionaletatik kanpo ere aurkituko zirenak. Hauek indibidualtasun eta oportunitatearen testuinguruan parte hartuko zuten bizitza militarrean, ordura arteko armaden barne logiken nolabaiteko amaiera ekarriz (Ayton, 2017; 58-59).

3.3. *Routier*-en sorrera

Gerra horrek, Frantziar eta Ingeles monarkiaren arteko gatazkak, suposatzen zien lana bertan behera geratzean, soldaduak bestelako gerretara edo zuzenean bizitza modu antzekoa baina jada gerra justuaren markoetatik kanpo egitera dedikatu ziren. Orduantxe eratu ziren Konpainia Handiak izenez ezagutzen diren mertzenario taldeak, nolabait langabe zeuden mertzenario talde ezberdinak batu eta lidergotza edota erabaki

mando propioak eratu eta kontinentean gerran eta izua zabaltzen hasi zirenean (Fowler, 2001; 1-6).

Indibidualtasun eta oportunitatearen oinarrituriko soldadu horiek ziren Bretignyko bakearen ondoren, beraien bizimodua galtzeko zeudela, mertzenario taldeetan antolatuko zirenak. 1360an Bretignyn bakea ezarri zenean gertaturiko fenomeno berri bat zela esan daiteke, bai behintzat eskala honetan, eta eskulan militar handi bat libre geratu zen bat batean (Curry, 2020; 359). Talde hauen osakeran arlo militarrean sarrera egin berri zuten gizarteko taldeek garrantzi handia izan zuten, hainbat *routier*-etako liderrak jatorri xumea izanez. Hala ere, jatorri xumeko kapitainak egon bazeuden arren, talde hauetako lider garrantzitsuenak nobleziako kide ziren edo horren aldarrikapenak zituzten (Fowler, 2001; 11-12).

Ingelesak eta bere aliatuek ebakutzen hasi ziren lehenengotariko zonaldea Borgoinako dukerriarena izan zen, bertako mertzenario taldeei ordaindu ondoren hauek zonaldea abandonatzea onartu zuten. Soldadu hauek okupatuak zituzten gotorlekuetan eta monarkien artean elkarbanatu ziren lurraldeetan kokatuak zeudenetan orokorrean arazoak egon ziren, guztiak ez zeuden prest ordura arteko bizimodua musu truk uztera, eta kasu askotan beraien posizioak (ekonomikoki) erreskatatuak izan behar izan ziren, Borgoinako kasuan bezala (Fowler, 2001; 24).

Gerlari talde horiek, beraien kabuz taldeetan antolatzen zoaztenak, frantziar lurraldeen arteko batasun ezaz baliatuz, herrialdean ospil bila mugituko ziren estrategia ezberdinez baliatuz (Contamine, 2014; 61). Honen adibide izango litzatezke lehen aipatu bezala Borgoinatik hegoalderantz jo zuten *routier* taldeak, Proventza eta Avignon zonalderantz jaitsi zirenak. Mertzenario talde hauen jarrera klasikoa izango zenari jarraituz, bertan gotorleku nagusi bat okupatu zuten, Pont-Sant-Espirit, hau operazioen zentro bezala erabiliz. Zonaldea guztiz estrategikoa zen, rodanoa zeharkatzeko baliagarri ziren 4 zubietako bat baitzen hura. Bertatik inguruko lurraldeak arpilatu, erreskateak eskatu, herriak okupatu eta herriengatik erreskateak ordainarazten zituzten. Hortaz gain Pont-Sant-Espirit-ek *routier* talde hauen “gathering site” bezala funtzionatzen zuen. Honela, Frantziako beste zonaldeetan gotorlekuak abandonatzearen prozesu berbera jasan zuten soldaduak ere ingurura erakarriak izan ziren. (Fowler, 2001; 27-34).

Ikusienez gerra estrategiak nahiko zehatzak ziren Ehun Urteko Gerraren testuinguruan, eta ez gerlarien aurkako biolentzia honen pilare garrantzitsu bat zen. Honen atzean aurkariaren gaitasun ekonomiko eta soziala mintzeko helburua edota soldaduek beren kabuz -monarkiaren babesarekin edo gabe- errekurtsuak kontzentratzeko helburua aurkituko lirateke.

4. *Routier*-ak eta indarkeria

4.1. Indarkeriaren ezaugarriak eta zabaltzea

Ehun Urteko Gerra estuki harturik frantziar eta ingeles monarkien dinastien arteko talka zen arren, honen eraginak kontinente osoan sentiarazi ziren, eta gerlarien mugikortasuna horretan ere erreflexatu zen. Ehun Urteko Gerrako protagonista izango ziren tropak, bai eta buruzagi batzuk, garaian eman ziren gatazka ezberdinetan parte hartu zuten, eta ondorioz Britainiako Ondorengotza Gerra, Gaztelako Gerra Zibila edota Italian hiri estatuen artean ematen ziren gatazka ugarietan parte hartuko zuten (Bell, 2008; 308-311). Borrokalariak beraiekin batera aurretik aipaturiko gerra estrategiak ere beraiekin eramango zituztelarik, aldi berean zonalde hauek Ehun Urteko Gerraren proxy gerrak ere bilakatu.

Mertzenarioek gauzatzen zuten indarkeriaren nolakotasunak ikuste aldera garaiko testigantza batzuk tratatuko dira. Lehena Merigot Marches *routier* erretiratuarekin Jean Froissart kronikariak eginiko elkarrizketan aurkituko genuke. Bertan Merigot Marches-ek *routier* bezala eduki zuen bizitzaren deskribapen bat egiten du, bizitza hura faltan botatzen zuela azpimarratuz. Lehenik eta behin bide-lapurreta eta bideen asaldaketaren praktikaz hitz egiten du, mandoen karabanak asaldatuz eskuratzea lortzen zituzten merkataritzako produktu ezberdinak aipatuz, balio handiko produktuak, hala nola, oihalak, larru finak, espeziak edota ekialde hurbiletik ekarritako zetazko produktuak, balio handikoak, produktu hauen itzultze edota salmentatik diru sarrera handiak lortuz. Bizitzeko behar zituzten elikagaiak okupatzen zuten gotorlekuetako zonaldeko nekazariak probesten zirela aipatzen du, elikagaiak soberan zituztela azpimarratuz, erregeak bezala bizi zirela esanez. Azkenik gotorlekuen konkista eta ondoren hauek abandonatzearen jasotzen zuten edo jaso zezaketan erreskateaz mintzo da (Froissart, 1967; 163-165).

Merigot Marches-en kasua mertzenario hauek zuten jarrerren erakusgarri garbia izango litzake, mertzenario hauek gotorlekuak behin okupaturik, eta hauek zentrotzat harturik, inguruko bideak eta biztanleria estortsionatuko zuten, erreskate pribatuak eta tributuoak eskatuz, biolentzia suntsikorragoa erresistentziak aurkitzerakoan erabiliz. Arazorik ez izan ezker, ondoren, denbora batez zonaldea arpilaturik, tokiko nobleziari edo biztanleei gotorlekuaren askatzeagatik ordainketa bat eskatu ohi zioten, beste zonalde batean taktika berberak aplikatzera mugituz edo gerraren batean parte hartzera mugituz⁴.

Froissartek elkarrizketaturiko beste *routier* baten bizitza, Bascot de Mauleon *routier*-arena, tradizionalki mertzenario tipiko hauetako batek igaroko zituen batz besteko bizipenen adibide bezala azaldu izan da beti. Garaiko Frente nagusietan parte hartu zuen, Britainian, Frantzian edota Nafarroako erregearen izenean. Era berean, Merigot Marches-en kasuan bezala, gotorlekuen konkisten nolakotasunak azalduko zituen. Horretaz gain, porrot eta bere buruaren erreskateak ere azalduko ziren, azkenik azken *routier*-ek okupatuak zituzten lurraldeak saldu edo ustea nola gertatu zen ere azalduz.

Horren adibide modelikoa izanik, batzuek Froissart berak asmatutako adibidetzat hartu izan dute Bascot de Mauleon-en kasua. Hala ere, Guilhem Pepin-ek esango zuenez, ez zen Froissart lanarekin hiper kritikoa izateko arrazoirik izango. Froissarten lanetan akatsak eta elkarrizketatuarekin gaizki ulertuak egon ahalko ziren arren, Bascot de Mauleon fikziozko pertsonatzat hartzeko argudio nahikorik ez zen egongo. Irakurketa kritiko baten bitartez *routier*-en bizitzaren inguruko informazio baliagarri asko aterako zela azalduko luke (Pepin, 2017; 189-190).

Mertzenario hauek orokorrean nekazariei ordainarazten zieten erreskateak taldeka izaten ziren, ez ziren zertan harrapatuak izan behar, biolentziaren meatxua kasu askotan nahikoa zen nekazariei ateraketak egitea lortzeko (Wright, 1998; 70-71). Kasu gehienetan gainera, zuzenean bertako komunitateko kideren baten kolaborazioa bilatzen zuten, bertako aberatsenak identifikatu eta zuzenean hauengana joateko. Nobleziako kideen edo burgesiako kideen kasuan ez bezala, nekazarien erreskateari zegokionean

⁴“Nola hartu genuen zuk eta nik, harresiak eskalatuz, Mercoeur-eko gotorlekua, Dofinerriko kondearena? Bost egunez soilik okupatu nuen eta bost mila franko jarri zizkidaten mahai gainean (...)”

erreskatea zerbitzuan kobratzea ez zen horren arraroa, hau da, *routier* taldeentzat lana eginez ordainduko zuten nola batean beraien erreskatea.

Biolentzia espiral hori eta honen ondoriozko suntsiketa zabalduz joango zen, eta honetan ez zuten soilik *routier*-ek parte hartuko. Nahi edo nahi ez, aurreko ataleko azken bi kasuetan ikusi dugunez, indarkerian parte hartzea ez zen soilik mertzenario edo *routier* horien aldetik emango, eta komunitate lokaletako kideak ere parte hartze aktiboa izango zuten.

Wright-ek azaltzen duenez aurretik aipaturiko *routier*-ek gauzatuko zuten biolentzia eta komunitate lokaletako kideek, edo kide ohiek, gauzatuko zutena hein batea bereizirik egongo ziren. Biak ala biak *brigands*-ak izango ziren arren, eta beraien indarkeriaren praktikatzeari ezberdintasun handiegirik egongo ez zen arren, justifikazioa eta aktibitate hauen arrazoa erabat ezberdinak izango ziren (Wright, 1983; 22-23).

Soldadu jatorriko *brigands*-ak beraien lanaren parte bezala justifikatuko zuten beraien biolentziaren erabilera, beraien bizi modua gerra baitzen, horrek identifikatzen zituen. Bigarren kasuan berriz aktibitate horien jatorria hein batean Ehun Urteko Gerraren indarkeria eta suntsiketak ziren, egoerak bultzaturik, ezegonkortasun soziala dela eta, bizirauteko estrategia bezala bide hori jarraitzea hautatu zuten edota hautatzera bultzatuak izan zirenek osatuko zuten.

Nekazari batzuk biolentzia eta ezinegon sozialaren testuinguruan bestelako probetxuak ateratzen ere saiatuko ziren, Ingalaterrako eta Eskoziako mugaren kasuan ikusiko zen bezala. Ingalaterra eta Eskoziaren arteko mugan, muga logikari jarraituz, inkurtsioak eta zakuratzeak ohikoak ziren. Eskoziarren zakuratzeak kalte ekonomiko ikaragarriak sortuko zituzten, nahiz eta herri batzuek, diru kantitate baten truke, honetaz libratzeko gai izaten ziren. Autoritateak bertan zuen presentzia txikiaz baliatuko ziren ondorioz, *Jack the Irishman-en* kasuan bezala, zakuratzean laguntzera ere iritsi zena (Prestwich, 1980; 67-69).

Nekazariak biolentzia horri aurre egiteko gai izango ziren kasu askotan, kopuru aldetik bazen ere gainjarri ahalko ziren estortsio hau inposatzera zoazten talde txikia, arazotzat ikusten zutena hauek *routier* taldeekiko zuten kideak zen, bazekiten horiei aurre egin ezker, ziurrenik geroago gerlari horien kide zirenen talde handiago bat

joango zela erresistentzia hura ordainaraztera, erresistentzia aktiboa horren ohikoa egiten ez zuen zerbait (Wright, 1983; 16-17).

4.2. *Routier*-en indarkeriaren zilegitasuna

Routier-ek gauzatzen zuten indarkeria ez zegoen ondo ikusia noski, ez jasaten zutenen aldetik, ez eta eliteen aldetik ere. Indarkeria hori ez zen garaian gerra justu bezala definitzen zutenaren barnean ematen hari, gizarteko elitearen ikuspuntutik bidelapur oso organizatu eta indartsuak ziren.

Elizaren aldetik, Aita Santuaren aldetik, erantzuna sendoa izan zen, lehenik eskumikatu eta azkenik hauen aurka gurutzada ere deklaratu zen, egiten hari zirena heresia kontsideratzen baitzen, benetan gaitzesgarria zen zerbait bezala alegia (Fowler, 2001; 34). Hala ere Aita Santuak konpainia hauekiko zuen jarrera denboran eta une berean ere kontraesanezkoa izaten zen, alde batetik hauek erlijioaren aldetik zigortuz, hauek kontratatzen zituztenei zigorrak ezarriz, baina beste aldetik beraien kontratapena lortzea saiaturaz, gurutzaden planifikazioetarako adibidez (Fowler, 2001; 118-121).

Baina errealitatean, mertzenario talde hauek gauzatzen hari ziren biolentzia ez zen soldadu zirelarik gauzatzen zuten biolentziatik ezberdintzen. Inork ez zuen dudatan jartzen nekazarien aurkako bortizkeria gerraren parte zenik, kolokan zegoena mertzenarioek egiten zutena gerra izatea zen (Wright, 1983 ;69). Bake testuinguruan monarkiek eta orokorrean agintari laikoen legitimitatea hein batean justiziaren aplikazioaren, ezarpen bortitz eta punitiboaren, bitartez lortzen zutela jakinik, ez da harritzekoa boterea, gerraren ondorioz bazen ere, kolokan zegoelarik justizia aplikatzeko gaitasuna ere murriztea, horrek dakartzan eraginekin (McGlynn, 2009, 49).

Ehun Urteko Gerraren testuinguruan, bereziki Frantziar Monarkiaren lurretan, horretaz baliatu eta bizitzeko aukera izan zuten pertsona zentralak mertzenarioak izango ziren. Gerra justuaren barnean kasu argiena jada azalduriko ingelesek aurrera eramandako *chevauchée*ak izango ziren. Gerra estrategia horren oinarria europar tradizionalki egiten zen gerraren berbera zen, suntsipen maila handia izango zuten razziak ziren, baina kasu honetan ingelesek normalean muga eremuan eta talde txikiek egiten zen zerbait eskala izugarri handian egin zuten (Curry, 2020; 358).

Lehenago aipatu bezala hauetako garrantzitsuenetako bat 1355ean Printze Beltzak zuzendurikoa izango litzateke, ondoren, 1356an Crecy-ko batallara eramango

zuten gertaeren hasiera. Kanpaina honetan 500 herri baino gehiago sakuratuak izan ziren, 1000 mando baino gehiagoko karabana izatera iritsi ziren ingelesak, maneiatu ahal zuten baino diru gehiago izatera iritsi zirela aipatzera iristen delarik. Eta hala ere suntsiketa irabazi horiek baino handiagoa izango litzateke, kasu askotan irabazirik lortu ez arren helburua suntsiketa sortzea zelako, frantziar erregearen egoera okertze aldera (McGlynn, 2013; 319-324).

Hala ere, eta kasu gehienetan, epe luzera kalte gehien eragiten zutenak ziurrenik ez ziren razzia hauek izango, maila lokalagoan funtzionatzen zuen gotorleku sareak egongo ziren kalte horren zati handi baten atzean. Gotorleku hauek beraien kabuz eragin txikikoa izango zuten arren, bertatik egiten zen estortsioaren jarraikortasunaren eta honengandik ihes egiteko zailtasunen ondorioz epe luzera kaltegarriagoa suertatuko litzake (Rogers, 2002; 60). Gotorleku sistemek defentsa sistemaren elementu zentrala osatuko lukete, aurkariaren oldartzei erantzuteko eta soldaduen gordeleku bezala funtzionatuko baitzuten (Curry, 2020; 365). Honek armadak era iraunkorrean zonalde hauetan mantentzea baimenduko zuen, eta gerra hartzen ari zen kutsua estatalarekin eta lurraren gaineko kontrol efektiboaren inguruko gatazkarekin bat egingo luke.

Gotorleku hauek ohiko soldaduarentzako karrera egiteko deigarrienak ziren, aukera erakargarrienak, diru sarrerak lortzeko aukerak handiak baitziren, orain ikusiko dugun bezala. Bertako goarnizioak, nagusiki muga egoeran aurkitzen zirenean, denbora guztian aurkariaren lurretan inkurtsioak egiten egongo ziren (Rogers, 2002; 59). *Chevauchée*-an orokorrean momentuko suntsiketa handiagoa izango litzake, bere oinarrian helburua suntsiketa sortzea baitzen, ez horrenbeste hornikuntza edota aberastasunen pilaketa, honek soldaduengan eragina bazuen ere. Goarnizio hauek egiten zutenaren kasuan berriz, beraien bizimodua biztanleria hauen estortsio eta erreskate ordaintzetan oinarritzen zenez unean ez zen agian horren kaltegarria izango, baina aberastasun ateraketa eta populaketa eta aktibitate sozioekonomikoan eragina handiagoa izango zen, egoera normalaren etetea luzatuko baitzen.

Egoera hori teorikoki bando berdinean zeudenen artean ere emango zen, *appatis*-en inposaketek erakutsiko luketen bezala. Teorian, hauek monarkiak onarturiko zerga bat osatzen zuten, bereziki muga gotorlekuen kasuan emango zena, eta monarkiak soldadak ordaintzeko arazoak zituenean gotorlekuko soldaduek biztanleriari defentsa mantentzeko ordainaraziko zioten zerga izango zen. Hala ere, kasu gehienetan,

gotorlekua okupatzen zuten soldaduek bortxaz lortzen zuten diru kopuru bat izaten zen, biztanleria bakean uztearren jasoko zutena, estortsio hutsa alegia (Allmand, 1973; 85). Kasu askotan biztanleria berbera bat hainbat gotorlekuri ordaintzera beharturik ikusten zen, despopulazioan eta landaketa honen abandonatzean eragina izango zuen zerbait, ezegonkortasun handia sortzen zuen egoera bat baitzen.

4.3. Indarkeria Erdi Aroan

Ez da guztiz harrizkoa Behe Erdi Aroko gatazketan indarkeriak zuen presentzia. Gizarte feudalean biolentzia elementu estruktural bat zen, sistemaren barnean errotuta zegoen ezaugarri nagusi bat osatzen zuen. Gizartea gerra aburu zuela zegoen antolaturik, nahiz eta bake garaia ere ezagutu zituen (Mcglynn, 2009; 32). Biolentziaren aldeko grina hori gizarteko kapa guztietan egongo zen presente esan bezala, eta hori egunerokotasunean islatuko zen. Jendea normalean armatua joaten zenez edozein liskarrek hilketaren batean amaitzeko arriskua zuen, hau da, biolentzia ez zen gizarteko arlo militarren monopolioa hutsa izango (Wright, 1998; 83).

Entretenimendua orokorrean odoltsua izango litzateke, boxeoa adibidez edota animalien aurkako biolentzia zentro zuten bestelako jolas batzuk ere, hala nola txerriak zartadaka akabatzea edota poste batera loturiko katuak buruz joka akabatzea (Mcglynn, 2009; 37-39). Ingalaterran, eta orokorrean mendebaldeko Europa osoan, tendentzia honek monarkien eta gobernarien babesa jasotzen zuen, arkulari edota baleztari entrenamenduak bultzada jasotzen baitzuten, igandetan hauen praktikatu beharra ezarriz adibidez, eta arma hauetan oinarrituriko konpetentzia edo torneoen bultzatzearen bitartez (Curry, 2020; 382). Honela biztanleriak entrenimenduaren bitartez prestakuntza militarra lantzea bilatzen zen.

Justizia, legitimitate eta estabilitatearen garrantzi sozialari buruz esandakoari estuki loturik, eta logika horrek argi utziko zuenez, muga zonaldeetan, aginte publikoen presentzia lausoagoa zen lekuetan, biolentzia era bortitzagoan garatuko zen. Muga zonaldeak lege hausturen ondorioetatik ihes egitea erraztuko zuten, eta honi gerra taktika nagusiak gehitu ezker, mugimendu handiko zonalde horietako lurraldeak etengabeko arriskuan aurkituko zirela begibistakoa izango litzateke (Allmand, 2005; 324-332).

Erdi Aroko gizartea, lehen esan bezala, gerrara zuzendurik zegoen gizarte bat izanik gerraren eta gerra aurrera eramateko legitimitate eta legitimate ezaren inguruko

teoriak garatuak izan ziren, bake eta egitura soziala mantentze aldera. Erdi Aroko gerra justuaren teorizazioak iturri klasikoetatik edaten bazuen ere, hala nola greziako edota Erromako eraginak jasoz, parametro propioak azaltzen zituen nagusiki erlijioari loturik (Whetham, 2009; 34-41). Orokorrean gerra zerbait on bezala ikusiko zen, bakera itzultzeko erreminta bai eta bidegabeko egoerekin amaitzekoa izango baitzen (Wright, 1998; 29-31). Gainera, era argian gurutzadetan aplikatuko zen logikari jarraiki, Jainkoak arrazoi zuen aldeari, kausa justua zuen aldeari, mesede egitea espero zen, beraz, gerra egitea beharrezko zerbait zen (Whetham, 2009; 42-45). Gerraren inguruan garatiko ziren ikuspegi teoriko hauek gizartean presente zegoen indarkeria bideratze saiakerak izango ziren, gerra justuaren kontzeptuan kristalizatuko zirenak.

Gerra justua definitu zutenen artean garrantzitsuenetako bat Graziano monje kamaldolitarra edukiko genuke, *Concordia discordantium canonum* Aita Santuaren bulden errekopilazioa kaleratu eta izugarrizko arrakasta eduki baitzuen. Honen ondorioz, auto defentsa eta besteen defentsa gerra justuaren ideien oinarri bilakatuko zen, gerra bat justua izan zedin autoritate publikoa bitartean egon behar zuenaren ideia indartzearekin batera (Whetham, 2009; 43).

Santo Tomasen idatzietan ere ideia hauek azalduko ziren, bere *Summa theologiae*-n azalduko zen bezala. Bertan lanean zehar azpimarratu ditugun zenbait ezaugarritan oinarrituko zuen gerra justua; Erregearen autoritatearen presentzian, menpekoen babespenaren erantzukizunean, erreinu barnean justizia indarrez ezartzen duen bezala kanpoko erasoei modu bertsuan erantzutean. Honetaz gain, tradizio klasikoari dei eginez, Agustin Hiponakoa-ren ideiei erreferentzia egingo lioke, gerra buruzagien kontutzat definituz, gerra egiteko arrazoia justua izatearen eta honela kalte gehiago ekiditearen beharra azpimarratuz eta beligeranteen helburua kalteak ekidin edota onurak sortzea izan beharko zela esanez (Allmand, 1973; 17-18).

Orokorrean garaiko pentsalari gehienetan ideia horien errepikapena ikusiko genuke, autore aipagarrienak Honoré Bouvet (c.1345-c.1409) eta Christine de Pisan (1365-1430) izango zirelarik, lehena bere *L'arbre des batailles*-ekin (c. 1387 idatzia) eta bigarrena bere *Fayttes of Armes and Chyvalrye* (1410). Esan bezala nahiko ideia antzekoak garatuko ziren, beraien artean eraginak azalduz ere (Whetham, 2009; 48-52). Pisan-en obran, adibidez, armen erabilerak, hau da, gerra ekintzek, estortsio, hilketa eta

suntsiketa asko eragiten zutela azalduko zuen, baina honetarako arrazoi justua izan ezkerro Jainkoak baimendu eta onartuko zuela esanez.

4.4. Zibilen egoera

Zibilek gerra eta gatazka testuinguruan paper zentrala zutela argi ikusi izan da lanean zehar. Modu batean edo bestean, gerra finantzatzen edo gerraren jomuga izan eta honen eraginak jasaten aurkituko ziren. Honela, zibilek jasaten zuten indarkeria dela eta honen inguruan ere, gerraren inguruko teorizazioen testuinguruan, teoria eta praktika batzuk garatuko ziren.

Zibilen defentsa beharraren lehen teorizazioak X. mende amaiera tirabiratsuan aurkitu ahalko genituzke, iraultza feudalerantz bideratzen zegoen gizartean ematen hari ziren gehiegikeriak medio, nekazari merkatari edo bestelako zibilez gain eliza ere jomuga izaten zuena, jainkoaren bakearen defentsa egin zen elizatik (Mcglynn, 2009; 124-125). Honen arabera pertsona batzuk, borrokan parte hartzen ez zuten gizarteko sektoreak, pobreak, merkatariak, elizgizonak, indarkeriaren jomuga ezin zirela izan proklamatu zuten, asteko zenbait egunetan borroka egitea debekatzera iritsiz. Proiektu hauek babes sozial nabaria jaso arren, errealitatean ez betetzeak eta hauekiko kritikak nahiko ohikoak izan ziren, jende xehea soldaduen beldur izanez, hauek biolentziarekiko zuten joera zela eta (Allmand, 2005; 325-328).

Behe Erdi Aroko aldaketa militarrek, diru ordainketen handitzeak eta egoera demografiko-politikoak bultzaturik zerga sistemak garapen handia ezagutu zuten garai honetan, nekazariak aginte publikoari ordaintzen zioten dirua, hasiera batean tenporala izan ohi zena baina gerren eta arrisku egoeren betiketzearekin ere epe luzera finkatuz joan zena, gero eta garrantzitsuago bilakatuz joan zen (Allmand, 2005; 332-334). Erdi Aro betean nekazariak gerrarako zuten garrantzia ez zen horren argi ikusten edo azaltzen, baina behe Erdi Aroan esan bezala hori nahiko argi ikusiko zuten, eta honek eragin zuzena izan zuen bai arlo teoriko eta praktikoa.

Jada aipatu dugun Christine de Pisan-en testuetara itzuliz, bere *Fayttes of Armes and Chyvalrye* liburuan, nekazari eta laborarien aurkako indarkeriaren legitimitate edo legitimitate ezaz hitz egitean, pertsona hauek erresistentziarik azalduko ez balute bakean utzi beharko zitzaie esaten da, baina hala ere beraien lur eta produkzioak erasotzea zilegi zela gerra justuaren barnean, ekonomikoki bazen ere gerran parte hartzaile izango baitziren (Allmand, 1973; 133-134).

Nekazal produkzioaren aurkako erasoen legitimazio bat dagoela ikus daiteke, gerran parte hartzea zuzenean militarra izateaz gain beste modu batzuetan ere ematen zenaren eta horrela antzematen zutenaren seinale. Gizarteko sektore ez militar horiek gerra jarduera bera mantentzeko behar beharrezko elementutzat ikusten zituzten, komunitate lokalek monarkiak defentsarako edo erasorako zituen gastuak ordaintzeko zuten betebeharrak erakutsiko lukeena, adibide bezala Karlos Frantziako delfinak bere aita Juan IIaren gartzelaldian jasotzea agindu zuen diru zerga izanez (Allmand, 1973; 134-136). Etsaiaren oinarri ekonomikoak zapuztuz norbera aberastearen ideia burutzen zuten ere, jada ikusi bezala, ingelesek aurrera eraman zuten *chevauchée*-etan azalduko zen eta.

Doktrina horretan are gehiago sakondu zutenak ere egon ziren, John Fastolf kapitain ingelesak 1435ean Ingalaterrako erregeari setioen guda alde batera utzi, bi gudaroste ez oso handi antolatu eta frantziar kanpina alde batetik bestera zakuratuz etsaiaren borroka nahi eta ahalmenekin amaitzea proposatzen zuen. Hau bere unerako ere gogorra izan zitekeela eta gerra krudeltasun horrekin egin behar izatearen errua frantsesei botatzen zien, beraiek gerra garbia aurrera eramatearen aurka egongo ziren lehenak izango zirelarik (Rogers, 2005; 335-336).

5. Ondorioak

Mertzenariak Erdi Aro guztian zehar egongo ziren arren, XIV. mendean garatuko zen mertzenarioen fenomenoak ezaugarri ezberdinak edukiko zituen. Fenomeno hau XIII. mendetik gertatzen hari ziren aldaketa militarren testuinguruan eman zen, autore batzuek iraultza militar bezala interpretatu duten aldaketen ondorioz.

Ehun Urteko Gerrak sortzen zuen egoerak ere aldaketak bultzatzen zituen. Ingelesen kasuan, gerra beraien lurraldetik urrun, kontinentean egiten zenez noblezia militarren parte hartzea erakartzea zaila zen. Basailutzan eta derrigorrezko zerbitzu militarrean oinarrituta zegoen ejertzito feudalen sistemak hutsuneak azaltzen joango zen, arazo gero eta handiagoak zituzten armatarako deiak betearazteko, eta bestelako aldaketa teknikoekin batera erreklutamenduan ere aldaketak eman ziren.

Erreklutamenduan emandako aldaketa horiek ordura arte arlo militarrean parte hartze militar txikiagoa zuten gizarteko sektoreei aukera berriak zabaldu zizkieten. Gotorlekuek gerra egiteko moduan eta Frantziako eremu ingelesak mantentzeko orduan

zuten garrantzia zela eta epe luzeko karrera militarretan interesaturiko jendeari atea zabaldu zitzaizkion.

Noblezia kanpaina laburragoetan eta etekina azkarrago lortzean interesatua zegoen, eta gatazka aurrera joan ahala beraien parte hartzea gutxitzen joango zen. Egoera berrian interes gehien zutenak berriz, sektore berri horiek, egoeraz probesten jakin zuten. Gerrak irabaziak lortzeko aukera handiak ematen zituen, eta gotorlekuen bitartez hauen inguruko bideen eta biztanleriaren gainean zuten kontrolaren bitartez diru eskerga irabazten zuten. Epe luzera kalte ekonomiko handiena sortuko zuten ateraketa ekonomikoak eragin zituzten honela.

1360an Bretignyko bakea sinatu zenean, erregeen artean hainbat lurralde eskualdatu ziren, bertan zeuden gotorlekuekin batera. Gotorleku horietako goarnizioak, ondorioz, hauek abandonatu beharrean aurkitzen ziren. Era berean, beste hainbat soldadu ere kontratu gabe geratu ziren, bake garaian hauen beharra ez zelako. Gerlari hauek ez zeuden ordura arte zuten bizi modu militarra alde batera uztera, edo ez zuten beste bizitzetara itzultzeko aukerarik ikusten. Honela, bakea sinaturik zegoela, gerra garaian zuten jarrera berbera aplikatuko zuten, gotorlekuen okupazioak, hauen erreskateak eta biztanlerien estortsioak aurrera eramanez.

Indarkeria monarkien soldaduek eta *routier* taldeek era bereberean erabiliko zuten arren, gizartean, behintzat elitearen aldetik, aktibitate hauek zuten tratamendua ez zen berbera. Ez zen modu bereberean antzeman eta interpretatzen. Biolentzia estrukturala zuen sistema izanik, indarkeria bera ez zen kondenatua zena, indarkeria hori autoritateen kontrolpetik at ematea zen arazoa, gerra justu kontzeptutik kanpo ematea zen arazoa.

Indarkeria horren zati garrantzitsu bat ez gerlarien aurka zuzenduko zen, hauek zuten gaitasun ekonomikoen harira. Gerra garaian hauen aurka joatea legitimo ikusten zen, borrokaren bitartez ez bazen ere ekonomikoki gerra esfortzua mantentzen laguntzen zutelako. Eta ondorioz, mertzenarioek aurretik jarraitzen zuten metodologiak ere aldatu ez zituztenez, honek aurrera jarraituko luke. Beraien aktibitatearen adibide argia emango ziguten Merigot Marches edota Bascot de Mauleon *Routier*-en kasuek.

Ehun Urteko Gerraren barneko kanpainak aurrera joan hala konpainien partaideak gutxituz joan ziren, erreklutamendu berriak ere egiten zituzten arren. Gerra

berpiztu zenean, 1369an, talde bezala borrokatzen jarraituko zuten, alde baten edo bestearen zerbitzura. Hala ere pixkanaka hauen aktibitateak murriztuz joan ziren, eta bestelako frontetara ere desbideratuak izan ziren, batzuk 1388-1390ean Armagnaceko kondearekin Italiara borroka egitera joanez. Oraindik okupatuta zituzten gazteluetatik pixkanaka kanporatuak izango ziren akordio edota hitz emateen bitartez. Azkenik, mende amaierarako talde hauen presentzia testimoniala zen, eremu lokal konkretu batzuetara mugatua, kasu batzuetan 1440 urtera arte ere luzatu zen arren (Contamine, 2014, 65. Pépin, 2016; 54).

6. Argitaraturiko iturriak

-Allmand, Christopher (ed.). *Society at war: The experience of England and France during the Hundred Years War* (Woodbridge: Boydell&Brewer, 1973).

-Froissart, Jean: *Chroniques*; Osnabrück: Kervyn de Lettenhove-ren argitalpena, 1967 (1866-1867); XIV. t., 163-165.

7. Bibliografia

-Allmand, Christopher (ed.). *Society at war: The experience of England and France during the Hundred Years War* (Woodbridge: Boydell&Brewer, 1973).

-Allmand, Christopher. *La guerra de los Cien Años* (Bartzelona: Crítica, 1989).

-Allmand, Christopher. “La Guerra y los No Combatientes en la Edad Media” in *Historia de la Guerra en la edad media*. (Madril: A. Machado Libros, 2005), 323-347.

-Ayton, Andrew. “English armies in the Fourteenth Century”, in *Arms, armies and Fortifications in the Hundred Years War* (Woodbridge: Boydell&Brewer, 1999), 21-38.

-Ayton, Andrew. “Military Service and the Dynamics of Recruitment in Fourteenth Century England” in *The Soldier Experience in the Fourteenth Century* (Woodbridge: Boydell Press, 2017), 9-61.

-Bell, Adrian R.; Curry, Anne; King, Andy y Simpkin, David. *The Soldier in Later Medieval England* (New York: Oxford University Press, 2013).

-Bell, Adrian R. “Fourteenth Century Soldier—More Chaucer’s Knight or Medieval Career?” in *Mercenaries and Paid Men. The Mercenary Identity in the Middle Ages*. (Leiden: Brill, 2008), 301-317.

-Contamine, Philippe. *La Guerra de los Cien Años*. (Madril: Rialp, 2014)

-Curry, Anne. “Western Europe, 1300-1500” in Anne Curry, David A. Graff (eds.) *The Cambridge History of War. Volume II: War and the Medieval World* (Padstow: Cambridge University Press, 2020), 349-388.

- DeVries, Kelly. "The Hundred Years Wars: Not One But Many" in *The Hundred Years War part II*, (Leiden: Brill, 2008), 3-31.
- DeVries, Kelly. "Mercenarios Medievales. Metodología, Definiciones Y Problemas". *Revista Universitaria De Historia Militar* 4 (8). (2015), 183-199.
- Fernández de Larrea, Jon Andoni. 'Servicio militar obligatorio, profesionalización y creación de los ejércitos permanentes en Europa Occidental en la Baja Edad Media (siglos XIII-XV)' in VV.AA. *Guerra, paz y diplomacia a lo largo de la Historia* (Valladolid: Universidad de Valladolid, 2012), 13-57.
- Jones, R. L. C. "Fortalezas y asedios en Europa Occidental c. 850-1450" in *Historia de la Guerra en la edad media*. (Madrid: A. Machado Libros, 2005), 211-239
- Mcglynn, Sean. *A hierro y fuego: las atrocidades de la guerra en la Edad Media*. (Barcelona: Editorial Critica, 2009)
- McGlynn, Sean. " "Sheer Terror" and the Black Prince's Grand Chevauchée of 1355". In *The Hundred Years War (Part III)*, (Leiden: Brill, 2013), 317-333.
- Mitre Fernandez, Emilio. "La Guerra de los Cien Años: primer conflicto global en el espacio europeo". *Clio & Crimen: Revista del Centro de Historia del Crimen de Durango* 6 (2009) 15-35.
- Pépin, Guilhem. "Los desmanes de los "routiers" y su relevancia en la guerra". *Desperta Ferro: Antigua y medieval* 38 (2016), 52-55.
- Pepin, Guilheme. "Towards a Rehabilitation of Froissart's Credibility: The Non Fictitious Bascot de Mauleon" in *The Soldier Experience in the Fourteenth Century* (Woodbridge: Boydell Press, 2017), 175-190.
- Perroy, Edouard. *La guerra de los cien años*. (Madrid: Akal, 1982.)
- Prestwich, Michael. *Armies and Warfare in the Middle Ages. The English Experience* (New Haven-Londres: Yale University Press, 1996).
- Prestwich, Michael. *The three Edwards: war and state in England 1272-1377*. (Londres: Weidenfeld & Nicolson, 1980).

- Rogers, Clifford J. "The military revolutions of the Hundred Years War" (1995) in *Essays on Medieval Military History; Strategy, Military Revolutions and the Hundred Years War* (Burlington: Ashgate Variorum, 2010), 55-93.
- Rogers, Clifford J. "By fire and sword: *bellum hostile* and "civilians" in the hundred years' war (2002) in *Essays on Medieval Military History; Strategy, Military Revolutions and the Hundred Years War* (Burlington: Ashgate Variorum, 2010), 33-78.
- Rogers, Clifford J. "La epoca de la Guerra de los Cien Años" in *Historia de la Guerra en la Edad Media*. (Madrid: A. Machado Libros, 2005), 179-208.
- Wright, Nicholas. *Knights and Peasants: The Hundred Years War in the French Countryside*. (Suffolk: The Boydell Press, 1998)
- Wright, Nicholas. "'Pillagers" and "brigands" in the Hundred Years War". *Journal of Medieval History*, 9 (1983), 15-24.
- Whetham, David. *Just Wars and Moral Victories: Surprise, Deception and the Normative Framework of European War in the Later Middle Ages*. (Leiden: Brill, 2009).